

LARRAUL

- Irazu bertsolari onenen artean

ANDOAIN

- Euskeraren erabilpena handituz doa
- Eudima eta Andoaingo Udalaren auzia

BILLABONA

- Beharrea daudentzat janaria biltzen

ZIZURKIL

- Muxar etxeratzearen aldeko plataforma

ELKARRIZKETA

- Susana Truchuelo
J. A. Rodriguez

KIROLA

- Egoitz Tolosa ehiztari eta karateka

1997ko abenduaren 24a. 71. Zenbakia. 150 pezeta.

Aiurri

Beterri-Aiztondoko Aldizkaria

Eguberri on!



ORDULARI
BITXITEGI

IRULEGI



☎ 59 07 57

**KOLTXOI DENDA
ARRATE PLAZA 9**



☎ 59 07 56

ETXEKO
APAINKETAK
ETA
KOLTXOIAK

Lentzeria,
ohial eta
bainujantziak

*Arrate
Berri*

☎ 59 44 83

GOZOTEGIA
IZOZTEGIA




INAXI

☎ 59 03 03

AGUSTIN LEITZA 3 eta 5

xarmant



ileapaindegia edergintza

Eskalintza berezia:

Solarium: 10 sesio: 4.000 pta.

Ordua eskatzeko deitu 69 42 61-ra

Eguberritako opariak
Urte berri on opa dizuegu

Ordutegia: Asteazken zehar 9:30tik 8etara.
Larunbatean 9etatik 5etara.

kale nagusia, 49 Billabona ☎ 69 42 61

AZKAIN



Motoak

APRILIA
HONDA
YAMAHA
KAWASAKI
SUZUKI



- ➔ Motorrerako behar duzun guztia
- ➔ Motore azterketak
- ➔ Mota guztietako Scooterrak
- ➔ Salmenta eta konponketak

Ubiluts auzunea, Pol. 56-Nº12 20140 Andoain
Tel./Fax: (943) 591413

G A N B A R A



T A B E R N A

Arteta Kalea 5-7 behe. ☎ 59 19 71

— ANDOAIN —

Abenduak 26 Jam session

gaueko
10etan

**Abenduak 28tik aurrera Iñaki Gozaloren
(Wentxi) kartel erakusketa.**



*Ogi berezi eta
artesanak*

Etxerainoko zerbitzua

OGI ZURI

Okindegia, S.L.
Lizarra-etxea, 32 Elizmendi auzoa
20159 ASTEASU/ ☎ 693294-691896

OGI · GOXO
okindegia ta gozotegi



- Etxeko turroiak
- Etxeko mazapanak
- Erregetako opilak

Kale nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA

1. AURKIBIDEA
AIURRITARRAK
J. A. Rodriguez
"Esperantzarik gabeko Esperantza".
2. IRAKURLEAREN TXOKOA
3. LARRAUL
Jexux Mari Irazu bertsolari onenen artean.
- 4-5-6. ANDOAIN.
Euskararen erabilpena handituz doa.
EUDIMA eta Andoaingo Udalaren auzia.
Soroaren etxebizitza bota dute.
7. ASTEASU
Badatoz erregeak.
- 8-9. BILLABONA.
Beharcan daudenentzako janaria biltzen.
10. ZIZURKIL.
Muxar etxeratzearen aldeko plataforma.
11. BASERRIA.
Istripuak eta aseguruak.
- 12-13. ERREPORTAIA.
Eguberrietako abeslariak.
- 14-15. ELKARRIZKETA.
Susana Truchuelo
Jose Antonio Rodriguez.
- 16-17. KIROLA.
Urkamendi elkarte kirolariak omentzen
Egoitz Tolosa ehiztari eta karateka
18. ERRETRATU ZAHARRA
19. ZER BERRI/LEHIAKETA
20. AGENDA

ESPERANTZARIK GABEKO ESPERANTZA



J. A. RODRIGUEZ
«TXIKI»

Bai lotsagabe naizela! Oraindik ere ez dut ditxosozko dekretu hori irakurri ere egin, eta hementxe nauzue, lasai lasai, dekretuari buruz idazten. Horrela doakigu!

Egia esan, atzoko informatiboetan ez zegoen beste albisterik: "el decreto de Humanidades" gora, "el decreto de Humanidades" behera. Hantxe ikusi genuen Esperanza anderea oposizioa konbentzitu nahian. Hitz polit eta leunak erabili zituen arren, alperrikakoak botatako izerdiak. Oposizioak eta baita Gobernuko sozioek ere, setati, ezetz eta ezetz.

Eta gaur goizean ere, Marianok -goizetan Herri Irratiko entzule bainaiz- berriro gaiari heldu dio. Orduantxe erabaki dut ze demontre!, nik ere zerbait esan beharko dut ez?

Eta hauxe da bururatu zaidan lehenengo gauza. Zergatik horrenbeste iskanbila? Beste guztien gainera teknologikoa miresten duen gizarte telematiko eta birtual honetan, giza zientziei buruzko dekretu batek halako burrunba sortu? Ez al ginen geratu, bada, giza zientziak ezer gutxirako balio zutelakoan? Ala ez?


Dena den, ez dut uste gakoa geografia eta historia pixka bat gehiago edo gutxiago irakatsi eta ikastea datzanik, erreka bat edo beste, errege bat edo beste, axola gutxi. Nere ustez, garbi dagoena honako hauxe da: betidanik Estatuak komunitate txikiagotan ezartzeko garaian bitarteko desberdinak erabili ohi dituzte, eta horien artean irakaskuntzarena ez da makalena izan. Beraz oinarrian zerbait sakonago dago jokoan, erasokorra bihur daitekeen "arma" baten erabilera.

Horrexegatik dekretu horrek harrotu ditu horrenbeste hauts, estatalizazioaren sinbolo bat bilaka daitekeelako, eta ez irakaskuntzaren eguneroko bizitzan izan dezakeen eraginagatik. Ze, egia esan, irakaskuntza munduan ez du horrenbesteko zaratarik sortu. Zergatik? Ba, zeintzuk diren eman beharreko gaiak aginduta ere, irakasleok dugulako azken hitza. Eta, gainera, askotan zer eman baino gehiago, nola ematen den, horrek du benetako garrantzia.

Esperantzarako aproposak diren egun hauetan Esperanza esperantzarik gabe gelditu zaigu! Eguberri zoriontsu eta urteberri on, irakurle!

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32
Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oñartza **Maketatzailea:** Eva Garcia **Erredakzioa:** Ainhoa Oñartza
eta Ainhoa Aiertza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). Lege-gordailua: SS-202/94
ISSN: 1354-0614 **Tirada:** 2.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.





Txapela


Gure auzoko Jexux Mari Irazuri, bertsolari txapelketako finale-ra iritsi eta egin duen saio ederragatik eskaintzen diogu gure txapela. Aupa Irazu, gora zut!

Pello Errota eskolako ikasle eta irakasleak



Aiztondoko I.Ipuin Lehiaketaren irabazleei eta parte hartzaile guztiei, 150 ikasleri, jarri nahi diegu txapela Aiurriko kideok. 1. eta 2. mailakoek komikiak egin zituzten eta Aikizako Juan Jose Olarra eta Naroa Gorostidi izan ziren garaile. Asteasuko Pello Errota ikastetxeak aipamen berezia jaso zuen. 3. eta 4. mailakoek ipuinak idatzi zituzten eta Asteasuko Mainer Arizeta izan zen irabazlea. Aipamen bereziak Zizurkilgo Mainer Baz eta Adunako Beñat Igerabide eta Haize Irulegik jaso zuten. Azkenik, 5. eta 6. mailakoek eginitako ipuin onena Zizurkilgo Aitor Loidirena izan zen eta Asteasuko Jon Lizasok eta Josu Iraolak aipamen berezia jaso zuten.

Aiurriko lagunak



Makila

NON DAGO KALETXIKIKO SEINALEA?

Kaletxikiko sarreran ipinita zegoen belozidatea txikitzeko trafiko seinalea, argi keinuak ere ematen zituena, bere tokitik falta da Konstituzio eguneko asteburu luzeaz geroztik. Seinalea, udal-etxearen aurrean 50en bat metrora egon eta tamaina eta pisu handikoa izan arren, garbi-garbi askatu eta eraman zuten bisitariek, dirudienaz arazo handirik gabe. Kotxe gidariei eskola gertu dela ohartarazteko seinalea zen hori. Zertarako behar ote dute bisitariek seinalea?

Nagore L. Andoain



Argitarapen honen edizioko laguntzailer:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa fundación

JOSEBA
ALTZARIAK
KUTXA DE SERVICIOS SOCIALES

IRAZUREN BERTSO SAIO BIKAINA

Laugarren postua lortu du bertsolari txapelketan

OROHAR, BERTSO SAIO BIKAINAK EGIN DITU JEXUX MARI IRAZU LARRAUDARRAK BERTSOLARI TXAPELKETAN. FINALERA IRISTEA GEHIEGITXO IZANGO ZELA USTE ZUEN, BAINA FINALERA IRITSI, ETA GAINE-RA, LAUGARREN POSTUA LORTU DU. ORAIN, BI HILABETE LUZE IRAUN DUEN TXAPELKETAZ ETA HORREK ERAGIN DUEN TENTSIOAZ AHAZTU NAHI DU.

-Nerbio asko izaten al diru Belodromoko oholtza gainean?

Nerbioak baino gehiago tentsio handia zegoen. Gu gazteak baino urduriago zuden Lizaso eta besteak. Guk ez genuen ezer galtzekorik, jendeak ez zigun beraici bezain beste eskatuko. Arratsalderako giro lasaia zegoen bai gure artean bai orokorrean.

-Giro ona izan duzue bertsolarien artean?

Konplizitate handia izan dugu gure artean, eta hori eskertze-koa da oso.

ZORIONAK IRAZURI ETA JARRAI DEZALA ORAIN ARTE BEZAIN BERTSO SAIO ONAK ESKAINTZEN!

Irazu Lizasorekin hizketan finaleran.



Argazkiak: Aitorba Monterola

-Zer moduz joan da txapelketa?

Bukatu da eta bakea. Azkenean nahikoa saio txukuna egitea lortu nuen eta gustura nago.

-Arratsalde partean bobeto moldatu zinen, ezta?

Goizeko saioa zaila-koa izan zen, neurri ezberdin ugari, bakarkako lana... konzentrazioa eskatzen zuen saioa izan zen goizekoa. Ni ez nintzen behar adina

konzentratu eta nahiko haserre nengoen neure buruarekin. Arratsaldean saioa konpontzera irten nintzen, eta lortu nuelakoan nago. Gartzelako saioan asmatu nuen.

Larraulgo kantariak



Urteroko legez, aurten ere, gaur bertan, herritar ugari irtengo da kantura. Talde bakar bat osatuko dute gaur kantuan ibiliko diren herritarrek, eta bilduko duten dirua elizako gastuak ordaintzeko izango da. Hamar urte inguru badira 30-40 larrauldarrak kantari batera irteten direla, soinu-jole eta guzti, eta beraz, gutxi entsaiatu behar izaten dute, kantak badakizkitez eta. Horrenbestez, gaur arratsaldean herriko abeslari paregabe hauen bisita izango duzu ziurrenik, eta abestearen trukean otordu edota diru pixka bat mereziko dute, ezta?

➔ HARPIDEDUN EGITEKO BETE EZAZU TXARTELA LEHENBAILEHEN ETA BIDA-LI GURE EGOTZARA EDO DEITU 300732 TELEFONORA!

HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak:

URTE OSOKO HARPIDETZA-SARIA 2 000 PTA.

Helbidea:

Kontu korrontearen zenbakia:

Kodea: Herria:

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Lanbidea: Jaiotze data:

Tokia, data eta izenpea:

Etxeko☎ : Laneko☎ :

"Bi kate" proiektuan bi andoaindar partaide

Mikel Kazalis (ahotsa, gitarra, sanplerrak eta programazioak), Izaskun Forcada (ahotsa eta dantza) eta Amaia Aikorta (dantza) dira "Bi kate" proiektuaren partaideak. "Bide laburra" izeneko diska horretan *tebno* eta *trash* musika, eta ahots melodikoa eta erritmo gogoren arteko nahasketa da nagusi. Horrezaz gain, bi andoaindarrak eszenatokian dauden bi kaiola erraldoietan dantza egiten dute. Taldearen asmoak eszenografia aldatzea eta zuzenean jotzen hastea dira. Zorte on proiektuarekin!



Maria Aierza



ZAHARRAK BERRI

GABONAK OSPATZEN

Ume koxkorak ginenean auzoko lagunak bildu eta kantari ateratzen ginen gabon egunean. Egun horretan biltzen genuen dirua bakoitzaren poltsikorako izaten zen. Nagusienak ere elkartu eta soinu eta guzti kantari ateratzen ziren egun horretan. Etxean familia osoa bildu eta bazkari eta afarictan, aza-olioa, arraina edo haragia, eta turroia jaten genuen, sobran ez zen askorik gelditzen! Urte Zahar egunean hamabi mahatsak jateko kontua ez da aspaldikoa, orduan ez genuen era horretan ospatzen urte amaiera. Gogoan dut, ordea, gaztainak danbolinean erretzen genituen eguna. Izeba-osabak etxera etortzen ziren egun horietan jatera. Gainerakoan, gure etxean ez genuen Gabonetako apaindurarik jartzen; jaiotza, adibidez, Elizan ikusten genuen. Kale eta dendetan ez ziren gaur bezalako apaindura horiek guztiak ikusten. Olentzero ere ez zen gure etxean ospatzen, Errege eguna bai ordea. Gogoan dut Erregeak ekarritako egurrezko zaldi koxkor txuria. Orduan jostailuren bat edo beste izaten zen errege egunean, gaur berriz, nahi adina eta gehiago dute haurrek. Genuenarekin ospatzen genituen egun horiek, famili giroan eta zoriontsu, hainbeste apaindura eta hainbeste kontsumo gabe. Hala ere, garrantzitsuena egun horiek familian eta zoriontsu pasatzea da, modua edozein dela ere.

Lankidetzaren astea

Andoaingo Udalaren Gizarte Zerbitzutako Lansailak aurten emaniko dirulaguntzen erabilera azaltzea izan da Lankidetzaren astearen helburua. Sahara-ko Lagunen Elkartea, Hirugarren Mundua ta Bakca, Medicus-Mundi, Mugarik Gabe, Proyde-Proega eta Ardura Paliatiboen Euskal Elkarteez batera beren proiektuak aurkezteko argazki erakusketa, maingurua, bideo proiektzioa eta herri horien produktuen azoka antolatu zuten aste osoan zehar. Ekitaidiak oso jendetsuak izan dira.

Ikastolaren logo berria

Larramendi ikastolak logotipo berria du. Egilea Eduardo Arrescygor izan da eta bere esanetan, fondo beltzeko gorri, txuri eta berde koloreko pintzelada batzuez osatutako irudiak, haurrak hezkuntzaren bidez izan duen ikasketa prozesua islatzen du. "Haurra txikitatik marrazkiak egiten hasten denean egiten dituen grafismoak hezkuntzaren hasiera adierazi nahi du. Fondo beltzak berriz, hezkuntza prozesu horren amaiera adierazten du. Ikurri-naren koloreek Euskal Herria adierazten dute".

(Ikus logoa kontrabotatadun)

AMAIUR

KALE NAGUSIA, 24 ☎ 69 16 11
BILLABONA

- OPARIAK
- LURRUNDEGI
- JANTZIAK
- BITXITEGIA
- OSAGIAK

Urte berri on!

ESKU LANAK

PUNTUZ PUNTU

Puntu - kruzean
espezializatutako denda

- Hariak •Ehunak
- Grafikoak •Kit-ak
- Petit-point
- Gantxilloa
- Arropa ekologikoa

Zumalakarregi, 7
TOLOSA
☎ 65 28 81



BRONTE OPTIKA

ZURE IKUSMENA GRADUATZEN DUGU
KONTAKTU LENTEAK
GORRENTZAKO APARAILUAK

Kaleberria, 36 - ☎ 692525 Billabona

Nafarroa Etorbidea, 20 - ☎ 651486 Tolosa



BRONTE ORTOPEDIA

NEURRIKA EGINDAKO ORTESIAK,
PROTESIAK ETA PLANTILAK, TAILERRA BERTAN

OSAKIDETZA ETA
LAGUNAROREKIN HITZARMENA

Kaleberria, 36 - ☎ 692525 Billabona

Nafarroa Etorbidea, 20 - ☎ 651486 Tolosa

EUSKARAREN ERABILPENA HANDITUZ DOA

Andoaingo Udalaren enkaruguz SIADEKO-k buruturiko euskararen erabilpenari buruzko azterketaren helburua, Andoaingo leku publikoetan erabiltzen den euskararen neurketa erreala egitea izan da. Finean, kalean erabiltzen den euskararen bilakaera aztertzea.

Aurreko urteetako emaitzekin alderatu ondoren, azken azterketa horretan euskararen erabilpenaren hobekuntza motela berresten da. Iazko neurketarekiko euskararen erabilpena mantendu egin den arren, orokorrean, azken ia hamar urteotan euskararen erabilpenak hobekuntza motela izan duela azpimarratu behar da. Izan ere, euskararen erabilpena minoritarioa da oraindik; bost pertsonetatik bat bakarrik ari da euskaraz.

HAUEXEK DIRA EMAITZA OROKORRAK:

	1979	1988	1996	1997
Entzundako pertsonak	3.030	4.913	7.468	9.276
Euskaraz ari zirenak	448	940	1.597	2.004
%	14.8	19.1	21.4	21.6

Datu horietatik guztietatik azpimarratu beharreko aldagai nagusienak azterketa burutu den lekua, aztertua izan denaren adina, neurketa garaia eta haurrekin herriarrek duten harreman berezitua izan dira. Adinari dagokionez, adineko pertsonak dira oraindik euskara gehien erabiltzen dutenak, haurren erabilpena adinekoen erabilpenetik gertu kokatzen den arren. Gazteek berriz, beren artean helduek baino euskara gehiago erabiltzen dute.

EUSKARAREN ERABILPENA % TAN:

	1979	1988	1996	1997
Haurrak	11.8	20.2	27.7	26.1
Gazteak	14.7	14.2	19.6	18.0
Helduak	15.2	18.0	16.6	18.2
Zaharrak	37.9	33.9	32.9	27.8
GUZTIRA	14.8	19.1	21.4	21.6

Haurrekiko harreman berezitua neurtzen zuen aldagaiari esker, haurrekin euskaraz nola hitz egiten den aztertu ahal izan da. Gauzak horrela, haurrak tartean direnean andoaindarrek euskara gehiago erabiltzen dute haurrak tartean ez direnean baino. Haurrak bakarrik direnean berriz, euskara gutxiago erabiltzen dute (% 23) helduekin daudenean baino (% 27). Fenomeno hori Andoainen bakarrik somatu da orain arte.

66 kiloko
kalabaza



Isturitzagatziki etxeke Migel Mari Oiarzabalek 66 kiloko kalabaza bildu berri du bere baratzean. Iaz 40-50 kiloko kalabaza dexente bildu zuen, aurten berriz, kilo gehiago pisatzen duen kalabaza bildu dute. Kalabazarekin zer egingo duten oraindik erabaki ez duten arren, ohikoa den gisa behiek jango dutela uste du Migel Mari. Horra argazkian, Luxio Oiarzabal bere semeak bilduriko kalabazarekin.

Karlos Garcia aske

Karlos Garcia andoaindarra kalean da jada. Hilabete terdi Carabanchel-eko gartzelan egon da, eta milioi erdiko fidantza ordaindu ondoren aske utzi dute. Abenduaren 12an ongietorria egin zitzaion herrian.

ESTETIK	A M A I A
• Gorputzera/ tratamenduak «GENETIK» abiliz	
• Gorputz drenaje linfatikoa «PRESOTEP»-PIA	
Kale Nagusia, 49 ANDOAIN ☎ 30 06 69	

S T O P
LIBURUDENDA
TESTU LIBURUAK
AUKERA ZABALA LIBURUTAN
(Ingelesez, frantsesez,
italieraz...)
Agustin Leitza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

Goiko
OPTIKA
**ZORIONAK ETA
EGUBERRI ON!**
Arteta z/g - 20140 ANDOAIN
☎ 590955

EUDIMA ETA ANDOAINGO UDALAREN AUZIA

ANDOAINGO TALDE ANTIMILITARISTAK ANTOLATUTAKO HITZALDIAN EUDIMA (UDAL INTSUMITUEN MANKOMUNITATEA) TALDEAREN SORRERA, FUNTZIONAMENDUA ETA EGUNGO EGOERA AZALDU ZUTEN. HORREZAZ GAIN, ANDOAINGO UDALA EUDIMAKO PARTAIDE DENEZ, HERRIKO ALDERDI POLITIKO GUZTIEK HITZALDIAN PARTE HARTZEKO GONBIDAPENA JASO ZUTEN BAINA EA ETA EAJ-PNVKO ZI-NEGOTZIEK BAINO EZ ZIREN AZALDU.

Intsumisioaren alde dauden Udalekin elkarlanean aritzeko asmoz sortu zen EUDIMA. Gauzak horrela, Euskal Herriko lurralde eta alderdi politiko ezberdinetako Udalekin hasi ziren lanean. Udalak bakarka egiten zuen lan hori mankomunatu gero, intsumisioaren aldeko mugimenduaren eraginkortasuna handiagotu egin baitaiteke. EUDIMAKO partaide izateko oinarritzko betebeharrak aliamendurik ez egitea, inhabilitazioa ez aplikatzea eta ordezkero zerbitzu sozialarekin ez kolaboratzea da. Gauzak horrela, 42 Udalek osatzen dute EUDIMA. Mankomunitatean Udal bakoitzeko alderdi politiko ezberdinetako bi ordezkariak parte hartzea gomendatzen du EUDIMAK, pluraltasuna mantendu ahal izateko.

ZIGOR PENALAK

Andoaingo Udala EUDIMAKO partaide izan arren, badu bere berezitasuna. PSE-EEko alkate

denak ezezko botua eman bazuten ere, gainerako alderdien aldeko botuekin EUDIMAN sartu zen Udala. Andoaingo alkatea deklaratzera deitu zutenean, eta bere botoa ezezkoa izan zenez, gai horren inguruan zer esanik ez duela adierazi zuen. Inputatuak izan diren EUDIMAKO beste 16 partaideak ere deklaratzera deituak izan dira. Inputazioaren arrazoia intsumisioa ilegal dela da, beraz, intsumisioa bultzatzen duten erakundeak ere ilegalak direla. Oraingoz, instrukzioa mailan dago gai hori guztia, baina epaia iritsiko balitz zigor penala ezarri diezaiekete alkateei. Hori dela eta, EUDIMAK intsumisioa bultzatzen duten talde edota erakunde guztien implikazioa ezinbestekoa ikusten du. Horrezaz gain, gai horren inguruko etorkizuna alderdi politikoek baldintzatuko dutela diote, eta epaiari alderdi politikoek eta azken batean, herriak erantzun beharko diola uste dute.

Jose Luis Casoren hilketa salatzen

Andoaingo Udaleko PSE-EE, EAJ-PNV, EA, PP eta IU-EBko ordezkariak PPko zinegotzia zen Jose Luis Casoren hilketa salatzeke komunikatu bat kaleratu dute. Bertan, ETAK dakien gauza bakarra egin duela adierazten dute. Gauzak horrela, ETAK bere ideia berberak ez dituen ororen kontra erasotzen duela azpimarratu dute. Salaketa hori azaltzeko Udaletxe aurrean eginiko konzentrazioan 150 herritar inguru bildu zen.

Soroaren etxebizitza bota dute

Kaleberri eta Kale Nagusiaren artean zegoen Soroaren etxebizitza, Pauloren dena gisa ezagunagoa, bota berri dute. Bere egoera txarra zela eta, jabeek beraiek eskatu dute etxea botatzea. Horrezaz gain, etxebizitza berria egiteko eskaera ere egin dute eta baimena jaso dutenez, berehala has daitezke obrak. Ondoaingo Bastero egoitza egingo dute eta nahiko handia izango denez, etxebizitza berria oraingoa baino altuagoa izango da. Horretarako arau subsidiarioak aldatu egingo dira.



ARANBURU
 agentzia
 Aseguruak - Aholkularitza
PROFESIONALAK GARA
 Kaleberria, 26 behea
 ☎ 59 08 14
 Fax-a: 59 24 03
 ANDOAIN
winterthur

— FERRETERIA
GOROSTIDI
 — BURDINDEGIA
SUKALDERAKO TRESNERIA
 Nagusia, 3 — ☎ 59 14 80 — ANDOAIN
 Nagusia, 18 — ☎ 69 22 37 — BILLABONA

minikost
LIBURUDENDA
PAPERDENDA
 Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57
 ANDOAIN

Ipuin kontaketa

Abenduaren 23an Pello Añorga ipuin kontalaria etorriko da Asteasuko Kultur Etxera ipuinak kontatzera. Arratsaldeko 16etan hasiko dira ipuin saioak, lehenengoa bi urtetik bost urtera bitartekoentzat eta bigarrena sei urtetik gorakoentzat.

Gabonetako Haur Parkera bisita

Abenduaren 29an Bilboko Gabonetako Haur Parkera joateko, Kultur Etxean eman behar da izena lehenbailehen. Lautik hamalu urte bitarteko haurrentzako txangora joateko 500 pezeta ordaindu behar da.



ERREGEEN DESFILEA

Errege bezpera gau majikoa izaten da. Urtarrilaren bosgarreneko gaua urteko gaurik luzeena izaten da askorentzat, haurrentzat batez ere. Asteasun, gaua zertxobait laburtzeko edo Erregeen desfilea izaten da arratsean. Hilerri ingurutik etortzen dira zaldi gainean Melxor, Gaspar eta Baltasar erregeak herriko txistulari, dantzari eta jendeaz lagundurik. Guztira, 120 lagun inguruk hartzen du parte desfilean. Batzuek, suziak eskuan, bidea argitzen dute; beste batzuek berriz, soinua eta panderoa hartu, desfilearen hasieran jarri eta musika jartzen dute ibilbidean, azkenik, eta desfilearen amaieran, jaiotza biziduna irudikatzen duten lagunak daude. Plazan amaitzen da desfilea, eta bertan, hiru erregeek beren opariak eskaintzeaz gain, Olentzerok ere eskaintzen du berea. Ondoren, eta gauari doinua jartzeko, txistulari, trikitilari eta danborrariak beren saioa eskaintzen dute.



Opariak banatuko dizkiete gaztetxoan.

OPARIAK

Urte batetik zortzi urtera bitarteko haurrek Erregeen eskutitza jasoko dute etxean. Eskutitz hori hartu eta desfilea amaitutakoan Erregeengana joanez gero opariak jasoko dituzte haurrek plazan. Zahartxoagoak direnentzako oparia bidean Erregeek banatuko dituzten goxokiak izango dira. Desfilea antolatzen aritu direnek berriz, Iturriondon egingo duten afaria izango dute opari.

HAURRENTZAKO EKINTZAK

Ikasturte osoa nahiz hilabete batzuk iraungo duten ekintzak antolatu ditu Asteasuko Udalak herriko haurrentzako. Horietako ekintza batzuk, gainera, eskolan bertan egingo dituzte. Beraz, eta datorren urtean gauza berriak egin nahiez gero, honako aukera hauek daude.

ESKOLA ORDUETAN EGINGO DIREN EKINTZAK:

- Eskalada:* 8 urtetik 12 urtera bitartekoentzat.
- Isotz irristaketa:* 8 urtetik 12 urtera bitartekoak Donostiako Txuri Urdinera joango dira.

Igeriketa ikastaroa: Guraso Elkarteak antolatuta.

IKASTURTE OSOAN ZEHAR EGINGO DIREN EKINTZAK:

- Judoa:* 4 urtetik gorakoek astean egun batean ordubetez judoan aritzeko aukera dute.
- Eskulanak:* 4 urtetik gorakoek astean ordubetez eskulanak egiten aritzeko sei hilabeteko ikastaroa dute aukerara.
- Pilota:* 6 urtetik gorakoek herriko frontoian pilotan aritzeko parada dute.

- Herri kirolak:* 8 urtetik gorakoak lokotxak biltzen, soka-tiran eta antzeko joku edo kirol gehiagotan ari daitezke.
- Futbola eta atletismoa:* 6 urtetik gorakoentzat.

IKASTURTE OSOA IRAUNGO EZ DUTEN EKINTZAK:

- Xakea:* 8tik 12 urte bitartekoentzat hiru hilabeteko ikastaroa.
- Txirindularitza:* Otsailetik maiatza bitartera astean egun batez egingo duten ikastaroa 8tik 12 urte bitartekoek.

Ludoteka Gabonetan

Malkar parroko aisialdi taldeak ludoteka antolatuko du Gabonetarako. Txerningo ikastolan jarriko dute ludoteka hilaren 26 eta 29an arratsaldeko lauetatik seietara. Lehenengo mailatik hirugarren maila bitarteko haurrek parte hartu ahal izango dute ludotekan antolatuko dituzten jolasetan eta ekintzetan. Malkar taldeak Gabonetan lehen-dabizikoz antolatzen duen ludoteka da.



Ainhoa Arozena

BERRIAK ZIRI

OLENTZERO

Aurtengoan, Gabonak aurretik zuritu zaigu inguru. Gabonak aurretik, era berean, Mari Domingi ere azaldu da herriko ikastola eta eskoletara haurren alaitasunerako. Gabon egunean berriz, euskaldunontzat hain maitea den ikazkina menditik etorri zaigu. Bai! Azkenean iritsi da Olentzero gure herriko plazara! Urtero Erregeen jaitsiera ikusi izan ohi dugu Amasatik behera, aurtengoan ordea, -Erregeez gain- haurrentzat eta helduagoentzat ere hain gustokoa den pertsonaia ikusteko aukera izan dugu; tripontzi eta alai, oparitxo-ren bat eskatzeko moduan izan garelarik -txintxoak izan bagara behintzat-.

Hurrengo urtean ere hire etorrera itxarongo diagu, hi haizenez Gabonetako gure pertsonaia maiteena.

Aiarri

URTE BERRI ON!

Tel.: 300732
FAXA: 300731
DR. HUIZI, 15 1. ESK.

TAXI ZIZURKIL

- Taxi zerbitzu orokorra
- Ezindu fisikoentzat ere moldatua

Pello Ezeiza

Zorionak eta urte berri on!



Tel. 69 08 23
Geltokiko tel.: 69 43 63



Gema

Lorategia

LORATEGIEN MANTENUA
KANPO NAHIZ
BARRUKO LANDAREAK

Kale nagusia, 30 ☎69 28 98 - Billabona

KIROL JANTZIAK

Liraura

Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 ☎ 59 44 47

ANDOAIN

**BEHARREAN DAUDENENTZAKO
JANARIA BILTZEN**

Kiloko kanpaina deitu diote parroko aisialdi taldeko, hots, Malkar-eko lagunek herrian burutu duten janari bilketari. Aurreko astean egunero, arratsaldeko seieta-tik zortziak bitarte, Gurea zinemaretoaren aurrealdean egon dira Malkar taldeko begiraleak eta sendotza taldeko neska-mutilak herritarren aportazioak jasotzen: guztira 18 lagun inguru aritu dira lanean. Lentejak, arroza, makarroiak, olioak, eta orohar, iraupen luzea duten elikagaiak bildu dituzte beharrezkoak diren herritarrei emateko. "Janaria ematea dirua ematea baino errazagoa da herritarrentzako, diruaren norakoaz ez dira fidatzen nonbait", diote janari biltzaileek.



bildu genuen, eta Caritas-ek adierazi zigunez, herrian beharrezkoak diren lagunek sei hilabetetarako janaria izan zuten gure kanpainan bildutakoari esker", azaldu digute kanpainaren antolatzaileek.

GABONAK, SENTSIBILIZATZEKO OSPAKIZUNAK

Duela bi urtetako Gabonetan martxan jarri zuten kanpaina da kiloko kanpaina delakoa. Laz kanpaina ez egiteko arrazoiak jendea ekimenarekin ez aspertzeko izan zen, eta aurtengo Gabonetan berriro ekin diote bilketari. "Gabonetan jendea sentsibilizatuago dago, eta beraz, errazagoa da horrelako

CARITAS-EK JANARIA BANATU

Izan ere, astean zehar Malkar-eko kideek bildu duten janari guztia beharrezkoak diren herritarrei banatuko die ondoren Caritas erakundeak. "Duela bi urte 500 kilo janari

kanpainak funtzionatzea", adierazi digute antolatzaileek. "Gabonak herriko jendea beharrezkoak diren lagunek dagoela gogorarazteko eta solidaritatea lantzeko datak dira ospakizunak izateaz gain", gaineratu digute.

Zabala
Ordukari Bitxitegia

RACER
T+
TISSOT

LOTUS
SEIKO

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari enparantza, 5 - ☎ 33 23 41 - HERNANI

SAHATSA

BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Kale Nagusia, 28 - Tfnoa.: 69 40 63 -Billabona

AE LEIZARAN
MARKOZKETA TAILERRA S.L.

Kaleberria, 40
20140 ANDOAIN
TEL.: 59 33 39
FAX. 30 01 57

OLEOAK, MARRAZKIAK, AKUARELAK, ESKUZ EGINDAKO ARGAZKI EUSKARRIAK

MUXAR ETXERATZEAREN ALDEKO PLATAFORMA

Hamar urte beteko dira dato-
ren urteko urtarilean Antton Ota-
mendi, Muxar, gartzelan sartu zutela.
Gartzela ezberdin askotan izan da ha-
mar urte hauetan, eta gaur egun Topa-
seko espetxean dago. Zigorraren hiru
laurdenak duela bi urte bete arren eta
legearen arabera kalean beharko luke-
en arren, giltzapean jarraitzen du

Plataformakideek aurrerantzean egin-
go dituzten ekintza herrietan parte
hartzera animatzen dituzte zizurkilda-
rrak.

UDAL JARRAIPIEN BATZORDERIK EZ

Azaroaren 24ko udalbatzak bertan
behera utzi du presoak Euskal Herri-
ratzeko udal jarraipen batzordea. HB-
ko zinegotziak soilik agertu ziren ba-



Udal jarraipen batzordearen
bilerat bat.

oraindik. Horrezaz gain, diabetikoa
da hirurogei urteko zizurkildar pre-
soa.

Horren guztiaren berri emateko eta
presoaren askatasuna eskatzeko plata-
forma sortu berri da Zizurkilen. "Mu-
xarri dispersioak eragin dizkion ara-
zoak ezagutarazteko eta errespetatzen
ez zaizkion eskubideak errespetaraz-
teko bildu gara, guztion ahalegina be-
harrezkoa baita", diote plataformaki-
deek.

EKIMENAK

Hilaren 21ean Zizurkil goiko zuhaitza
apaindu zuten Muxar gogoan zuten
zintzilikario eta apaindura gehiagoz.
Gaur berriz, Joxe Arregi plazan mura-
lak jarriko dituzte Muxarri mezuak
idazteko eta bidaltzeko.

tzordearen alde. Udalbatzarrean EAJ-
PNV eta EA alderdi politikoez adiera-
zi zutenek, udal jarraipen batzordeak
Zizurkilen eta Euskal Herri mailan
gertatu diren hainbat jazoera (Miguel
Angel Blancoren hilketa, herriko Bat-
zoki eta Alkaltetxearen erreketak...) sal-
latzen ez dituelako batzordea bertan
behera utziko dute. Bestalde, eus-
kal presoak Euskal Herriratzearen al-
de daudela esan zuten, baina horren
alde lanean aritzeko beste erakunde
batzuk aproposagoak direla uste dute,
Eusko Legebiltzarra esaterako. Senideak
erakundeak gogor kritikatu du erabaki
hau, eta udal politikariek presoek be-
hin eta berriro bortxatzen dizkieten
legezko eskubideak bete arazteko ar-
dura dutela diote.

UDAL LANETARAKO ZERRENDA BERRIA

Zizurkilgo Udalak kualifi-
katu gabeko udal lan-
gileen ordezkapenak
egiteko, familiaren ar-
dura beraiek bakarrik duten he-
rritarrek kontratatuko ditu 1998.
urtean zehar. Aipaturiko herritar
multzo hori pertsona dibortzia-
tuek, beren bikotearengandik be-
rezitutakoez, alargunek edota
bakarrik bizi eta 18 urtez behera-
ko seme-alabak dituzten aita/ama
ezkongabeek osatuko dute.

ABENDUAREN 30A ARTE IZENA EMATEKO EPEA

Lan horiek egiteko izena eman
nahi dutenek abenduaren 30a
baino lehenago eman behar dute
beren izena Udal Bulegoetan.
Izena emateko beharrezkoa izan-
go da N.A., INEMeko enplegu
eskatzaile txartela eta errolda eta
elkarbizitza ziurtagiriak aurkez-
tea.

Behin izen guztiak jasota zerren-
da osatuko dute eta 1998. urtean
sortzen diren beharrei erantzute-
ko zozketa bidez aukeratuko dira
behin behineko udal langileak.

Mikel Arrastoa alkate ohia absolbitu egin dute

HBko alkate ohia den Mikel Arrastoa
absolbitu egin du Donostiako Entzu-
tegiak. Gazteak soldadutzara deitze-
ko zerrendak ez betetzeagatik epaitu du-
te alkate ohia. Neurri hori Udalaren
gehiengoaren erabakiari jarraituz har-
tutakoa izan zela dio Arrastoa. Fiska-
lak 200.000 pezetatoko isuna eta urte-
beteko lanuztea eskatu arren, azkene-
an ezin izan dute frogatu alkateak ze-
rendak osatzeko eskaria jaso zuenik.

ISTRIPUAK ETA ASEGUURUAK

Baserrietan gertatzen diren istripu asko ez dira lan istripuetako datuetan agertzen

Ganadua gobernatzerakoan edota esbrozadorekin lanean istripu ugari izaten da. Istripu larrienak, ordea, siloak garbitzerakoan edo basoan lanean aritzean gertatzen dira. Azken hauek dira lan istripuetatik jotzen diren gertaerak, baserritarrek ematen baitute istripu horien berri. Baina aurretik aipatu ditugun istripu ez hain larriak ez dira datuetan agertzen. Izan ere, eta ENBA sindikatuko Xabier Iraolak azaldu digunez, baserritarrek ez dute gertaera askoren berri ematen baja lortzeko zailtasunak dituztelako:

“Osalanek lan istripuetako datuak argitaratzen dituenean baserrietan istripu gutxi izaten direla dirudi. Baserritarrek, baja lortzeko zailtasunak dituztelako, istripuak izan dituztela adierazten ez dutelako gertatzen da hori”. Kontua da baserritar gehienek Seguritate Sozial Agrario minimoa dutela, “16.500 pezeta inguru ordaintzen dute”. Ondorioz, ez dute istripuen berri ematen, ez baitute ordaintan bakarrik lortzen. “Baina



Traktorearekin istripu ugari izaten da

2.260 pezeta gehiago ordainduz gero, istripua gertatu eta 15 egunetara baja kobratzeko eskubidea izaten da”, adierazi digu Iraolak. Hurtsune eta babes falta handia duela dio sindikalistak Seguritate Sozial Agrariari buruz, horrexegatik, eta egoera hori al-

datu bitartean, baserritarrek seguru pribatuak izatera animatzen ditu: “Istripuren bat gertatuz gero baja lehenbailehen kobratzen has-teko aukera dago seguru pribatuen bitartez”.

KONTZIENTZIAZIO LANA

ENBA sindikatuak Osakidetzarekin hainbat bilera egin ditu herrietako anbulategietako medikuek baserritarrek izaten dituzten istripuak lan istripu moduan kontsidera ditzatela eskatzeko, “nahiz eta bajarik kobratu ez, istripuen datu errealak jasoko genituzke behintzat”. Bestalde, baserritarrek izan dituen istripuak lan istripu direla adieraztera animatzen ditu sindikatuak, “eta Seguritate Sozial Agrarioaren erregimena aldatu artean, seguru pribatu bateko kide egitea, baja izateko”. Azkenik,

Egiasa seguru pribatuari baserrietako istripuen ondorioz nekazariak jasoko dituzten baja mota ezberdinen tipifikazioa egiteko eskatu dio ENBA sindikatuak.

Izan ere, istripu ugari gertatzen baitira guztiak plazaratzen ez badira ere.

GOROSTI
HERBORISTERIA

- TERAPEUTA
- DIETA PERTSONALIZATUAK
- AKUPUNTURA
- MEDIZINA TXINATARRA.
- PRODUKTU ETA JAKI DIETETIKOAK
- LANDARE ETA PRODUKTU TXINATARRAK.

Txermin kalea 13, behea
☎ 69 20 56
BILLABONA

VAC VAC **HOL-ATZ** 

VACSOL - WR[®] TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Elbarrena, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
ADUNA

ASESORIA
GESTORIA
ASEGUURUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA!!

Kaleberria 22
Telefonia 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN

Eguberrietako abeslariak

Urtean zehar lanean jarraitzeko biltzen dute dirua gaurko egunean abesten irteten diren lagunartek

HATOR, HATOR, ETA GAUEKO IZAR BEZALAKO KANTU ETA BERTSO GEHIAGO ENTZUNGO DIRA GAURKO EGUNEAN. BATZUEK TXUKUN-TXUKUN ABESTUKO DITUZTE ABESTI HAUEK, ENTSAIOETAN EGIN DUTENA ERAKUTSIZ; BESTE BATZUEK BERRIZ, DOINUARI JARRAITZEN ETA LETRA GOGORATZEN NAHIKOA LAN IZANGO DUTE. GUZTIEK DIRUA ESKATZEN DUTE KANTATZEAREN TRUKERAN, BAINA DENEN HELBURUA USADIO-AREKIN JARRAITZEA ETA EGUNARI GIROA JARTZEA DA. BERAZ, EZ EZAZUE GALDU GAURKO EGUNA ALAITUKO DIGUTENEI ESKERRONA ADIERAZTEKO ETA BEREN LANEAN JARRAITZEKO BEHAR DUTEN DIRUA EMATEKO AUKERA. USADIOAREKIN JARRAITZEA HAINBESTE MEREZI DU.



HERRI TXIKIAK LAGUNARTE BEREAN

Herri txikietan, Aduna eta Larraularen, herri guztia batera irteten da kantuan. Adunan lehendabizikoz irtengo dira kantari herritar guztiak batera, arratsalde partean. Gazte festak eta ekintza gehiago antolatzeko behar duten dirua biltzeko animatu dira abestera irtetera. "Santa Agedan jende asko atera ginen kantura eskola txikien eguna antolatzeko dirua biltzeko.

Hori ongi atera zelako animatu gara Gabonetan ere irtetera".

Larraularen berriz, aurtengoa ez da kantari irtengo diren lehendabiziko urtea. Herritar ugari elkartuko da gaurkoan kantatzeko, eta biltzen duten dirua elizarentzako izango da. Soinujoleak ez dira faltako eta herriko abeslariak laguntzen arituko dira arratsaldean zehar.

ESKOLA TXIKIEN EGUNA ANTOLATZEKO BILDUKO DUTE DIRUA ZIZURKILGO SAN MILLANGOEK

IKASTETXEA USADIOARI JARRAITUZ

Ikastetxetako haurrak dira hutsik egin gabe urtero abestera irteten diren baka- rrenetakoak. Adunako eskola mikrobusean sartuta herriko txoko guztietara joango da abestera. Abesten igaroko dute goiza, eta biltzen duten dirua eskolarako izango da, "materiala erosteko, bidaiak egiteko...". Eguerdian Olentzero izango dute eskolan zain, abeslari gazteei opariak emateko zain.

Asteasuko Pello Errotako lagunak bi taldetan banatuko dira: txikienak goizean herrian zehar arituko dira abesten, eta zaharragoak baserriaz baserri ibiliko dira ezdarriak urratzen. "5. eta 6. mailako ikasleek biltzen duten dirua ikasturte amaierako bidai ordaintzeko izango da. Besteok jasotakoa berriaz, eskolarentzako".

Eguerdian plazan elkartuko dira bi taldeak hamaiketako egiteko.

Zizurkilen hiru ikastetxetako hiru talde irtengo dira kantura. Otañoko ikasleak beren irakasle eta gurasoekin arituko dira kantuan eta eguerdian Urkamendi elkartean egingo duten hamaiketako ordaintzeko izango da goizean zizurkildarrek emango dieten dirua. Ikastolako taldeak berriz, eskolako beharretarako jasoko du dirua. Zizurkil goiko San Millan eskola txikikoez ibilbide luzeagoa egingo dute aurtan. "Izan ere, ikasturte amaieran Zizurkilen egingo da eskola txikien eguna eta hori antolatzeko dirua behar dugu".

Gogoz egin diuzte entsaioak, etxera ere eramane dituzte kantuen letrak gaurko egunean ongi ikasita abesteko. Eguerdian Pantxikanen bazkalduko dute Olentzerori eskutitzak eman eta gero guraso, irakasle eta ikasleek.

Billabonan ere ikastolako eta Fleming eskolako haur talde bi arituko dira kantari goize-

an nahiz gauean. Ikastolako-ek bilduko duten diruaren norakoaz galdetzean, "beharrean daudenei emango diegu", adierazi digute.

Andoaingo Larramendi ikastolako haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako ikasleak hiru talde ezberdinetan irtengo dira kantura; eguerdian gaztain jatea egiteko bilduko dira Bazkardoko ikastolan. Bigarren hezkuntzakoak arratsaldez arituko dira kantari, "ikastolako komunitatea osatzen duten guraso, ikasle ohi eta lagun gehiagorckin batera". Bildutako dirua gaztaina jatea ordaintzeko eta ikastolarako izango da. La Salle-Berrozpeko ikasleek ere bi txanda ezberdinetan, batzuk goizean eta besteak arratsaldean, Andoaingo kale guztiak pasatuko dituzte kantuan. DB-Heko ikasleekin Munilla eta Gazte Lekuko lagunak irtengo dira. Zahar egoitzan amaituko dute ilunabarrean kantu saioa eta ordurako bilduko duten dirua zertarako izango den erabakitzeke dute: "Urtero proiektu ezberdin bati laguntzeko izaten da". Ondarreta-Leitzaran ikastetxeakoak ere kantari arituko direlakoan gaude.

URTEAN ZEHAR

FUNTZIONATZEN

JARRAITZEKO DIRUA

Beren funtzionamendurako behar duten dirua biltzeko dabilta gaurko egunean



kantari Zizurkilgo Kostata gazte asanbladakoak. Zizurkil goian eta behean ibiliko dira indarrak amaitu bitartean, nahiz eta etxeetan ematen dieten jan-edanarekin nahikoa indar berreskuratzen duten. Billabonako Eresargi txiki eta handiko abeslariak ere egun osoan zehar arituko dira Billabonan eta Amasan abesten, eta ziur oso ongi abestuko dutela. "Eresargi txikikoek bilduko duten di-

ria Estrasburgora egingo duten bidaia ordaintzeko izango da". Billabonan, gainera, badago aurreten herrikuntzarik. Olentzeroren etorrera egingo dute gaur ilunabarrean Otsabi alde-tik hasita. Aurreko astean Mari Domingin ibili da ikastetxez ikastetxe 2. mailatik beherako haurrei ipuinak kontatzen eta gaur Olentzerok ikustera joateko gonbidapena luzatzen. Izan ere, Olentzero eta Ma-

ri Domingin plazan izango dira gaur ilunabarrean haurren eskaerak, kezkek eta nahiak biltzeko, "ez zein jostailu nahi dituzten jakiteko soilik". Olentzeroren irudia eta bere inguruko mitologia zabaltzeko eta euskal giroa sortzeko burutu du ekimena herritar talde baten, eta herriko talde guztiak bertan parte hartzera animatzen dituzte, "baita egunaren amaieran egingo dugun kantaldian parte hartzera ere". Lehen Eusko Alkartasuneko lagunak irteten ziren kantura Billabonan eta Zizurkilen, baina azken urteotan ez dira abestera ateratzen. Halere, Errege egunean Santiago egoitzara joaten dira hainbat kantu kantatzera.

PRESOAK ERE

KANTUAN

Andoaian, Zizurkil eta Billabonan urtero irteten dira taldeak kantatzera Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta. Zizurkilen bertsolariak lagun dituztela ibiltzen dira kantari, eta Billabonan berri-z, Gabon kanta hereziak abesten dituzte. "presoen egoeren berri ematen duten letrak abesten ditugu". Biltzen duten dirua presoentzat izaten da. Iluntzean manifestazioak egiten dituzte herriko presoen egoeraren berri emateko eta salatuzko, "jende ugari biltzen den mobilizazioak izan ohi dira".

**OLENTZEROREN
ETORRERAN AMAI-
ERAN HERRIKO
TALDE GUZTIEK
BATERA ABESTUKO
DUTE BILLABONAN**

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

ILLUMBE

Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

ILLUMBE, S.L.

LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK
Pablo Gorosabel, 48
☎ 65 54 76 TOLOSA
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa
☎ 59 24 11 ANDOAIN

SUSANA TRUCHUELO:

“BOST URTETAN BILDURIKO INFORMAZIO ETA LANAREN EMAITZA DA LIBURU HAU”

“ La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII)” izenburupeko lehen liburua kaleratu du Susana Truchuelo andoaindarrak

29 URTEKO SUSANA TRUCHUELOK HISTORIA IKASKETAK EGINDITU DONOSTIAN (EUTG-N) ETA SANTANDERREN, ETA EGUN, TESIA EGITEN ARI DA. HORREZAZ GAIN, LEHIAKETA EZBERDINETAN PARTE HARTU ETA IKERKETA UGARI BURUTU DITU.

Labur labur, zein da zure lehen liburuaren gaia?

Izenburuan adierazten den bezala, Gipuzkoako udal korporazioak XVI. eta XVII. mendeetan zehar Probintziako gobernu organoetan txertatzean izandako gatazkak dira liburuaren gai nagusia. Hau da, Gipuzkoa politikoki egituratzen ari zen garai hartan hoterearen banaketan desberdintasun handiak zeuden eta ondorioz gertatutako desorekak aztertzen dira liburu horretan. Egiten ari naizen tesia berriz, ez da hain zehatza nahiz eta gai horri lotuta

dagoen. Lan horiek guztiak egiteko tesiaren tutorea dudan José Ignacio Fortea Pérez izan dut laguntzaile eta gidari. Espainian, historiaren munduan oso ondo kontsideratuta dagoen irakaslea da eta oso gustura nago bere ekarpen eta laguntzarengatik.

Lehiaketara aurkeztu ondoren egin duzun lana da, ezta?

Orain artean lehiaketa ezberdinetan ematen dituzten beken bidez egin ditut lanak. Lehiaketetara aurkezterakoan memoria bat prestatu behar duzu, hau da, egingo duzun lanaren gaia, metodologia, helburuak eta horrezaz gain, lan hori burutzeko behar duzun denbora zehaztu behar da memorian.

Zein prozesu jarraitu duzu lan hori egiteko?

Sakonki azertu ahal izateko, normalean, gai zehatzak aukeratu behar dira. Izan ere, oinarritzkoa dena jada aztertuta dago historiako liburuetan. Horrezaz gain, egin ditudan lanetan gai berdinen aspek-



Susana Truchuelo bere azken lanarekin.

tu ezberdinak aztertu ditut.

“XVI. ETA XVII. MENDEAN BOTERE BANAKETAREN ONDORIOZ GERTATUTAKO DESOREKAK AZTERTZEN DIRA LIBURU HONETAN”

Aldez aurretik lorturiko eta irakurritako bibliografia eta dokumentazioa aprobetxatu dut, zeren eta bestela denbora labur batean ezin da azterketa sakon bat egin. Bost urtetan bilduriko informazio eta lanaren emaitza da liburu hori. Horrezaz gain, nire ustez, oinarritzko ezagutza bat ez baduzu ezin duzu ikerketa egoki, sakon eta txukun bat egin.

Lehen liburu borrezaz gain, zein lan egin duzu?

Tolosako Udalaren osaketari buruzko tesina; Marta ahizparekin batera egin nuen Tolosako oligarkia eta Diputazioaren ikerketa; Frantzia eta Alakanteko Kongresuei buruzko ikerketa; Leizaur 4. libururako 1.615. urtetik aurrerako Andoingo herriaren organizazioa, eta azken lan hau, Gipuzkoako udal korporazioak XVI. eta XVII. mendeetan Probintziako gobernu organoetan izan zuten txertaketari buruzko lana dira egin ditudanak.

JOSE ANTONIO RODRIGUEZ RANZ: “ESPETXEETAN ERAKUSKETAREN HELBURUA GERRA OSTEKO GARTZELA EGOERA GOGORARAZTEA DA”

JOSE ANTONIO RODRIGUEZ RANZ HISTORIA GARAIKIDEKO DOKTOREA ETA DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO HISTORIA IRAKASLEA DA. TESIAN, “GIPUZKOA II. ERREPUBLIKAN” GAIA AZTERTU ZUEN, BAITA ARGITARATU ERE LIBURU MARDUL BATEAN. TOLOSAKO EAJ-PNV-REN HISTORIA ETA LEIZAOLAREN ARGAZKI LIBURUA ERE LANDU DITU. AZKEN URTETAN BERRIZ, ENKARGUZ EGINIKO ZENBAIT LAN BURUTU DITU. BESTEAK BESTE, “ESPETXEETAN” ETA LIZARDI, LEIZOLA ETA AITZOL IDAZLEEI BURUZKO ERAKUSKETETAN PARTE HARTU DU. ETBRAKO ZENBAIT DOKUMENTALEN GIDOIA ERE EGIN DITU. “ESPETXEETAN” ERAKUSKETAREN ETA HURRENGO PROIEKTUEN BERRIZATEKO ELKARRIZKETATU DUGU JOSE ANTONIO RODRIGUEZ RANZ ANDOAINDARRA.

Zer da eta zer adierazi nahi da “Espetxeetan” erakusketarekin?

Erakusketa horren bidez gerra osteko gartzela egoera gogorazti nahi da. Horretarako, espetxea sinbolizatzen duen lau eremuz osatutako erakusketa egin dugu. Hau da, fusilamendu pareta, zelda, moldiztegia eta botika bat ageri dira erakusketan. Horrez gain, presoek utzitako testigantzez (eskulanak, gutunak, argazkiak...) osatutako panelak eta musika eta bideoa ere badaude erakusketan. Bakarka eta isilean ikusteko

**“ESPETXEETAN
ERAKUSKETA BAKARKA
ETA ISILEAN IKUSTEKO
ERAKUSKETA DA”**



Zein arrazoiengatik antolatatu da erakusketa hori?

Aurten bi ekintza garrantzitsuren 60. urtemuga ospatzen da. 1.936ko urriaren 15an alderdi demokratiko guztietako 14 preso fusilatu zituzten Santoñan. Horrez gain, presoek “Espetxeetan” izenburuko aldizkaria egiten hasi ziren izkutuan. Bost-sei ale hasieran, eskuz egiten baitzituzten, eta ondoren, Burgoseko gartzelan zegoen inprentan. Horren guztiaren 60. urtemuga denez, gartzela-

erakusketa da. Ilunpetan eta musikarekin batera, sentsazioekin jotzen duen erakusketa da.

ko egoera islatzeko antolatutako erakusketa da. Urtebetez, herri ezberdinetan izango da ikusgai. Urtarrilaren 10a arte Durangon egongo da erakusketa. Ondoren, Donostian izango dugu.

Zein dira zure hurrengo proiektuak?

Epe laburrera begira Radio Euzkadii buruzko lan bat bukatu behar dut. Ondoren, ACC Mondragon Kooperatibak eskatuta, gerra zibila arteko kooperatibismoa landu behar dut. “Espetxeetan” erakusketari dagokionez, Santoñako gartzelan izan diren presoek fitxak lortu ditugu eta beraz, erakusketari dagokion katalogoa kaleratuko dugu. Horrez gain, unibertsitateko beste irakasle batzuekin batera beste lan bat burutzen ari gara. Lanak taldekakoak dira. Ikasle ohi eta ikasleekin osatutako taldeak izan ohi dira, era horretan, ikasleei lan horietan parte hartzeko aukera ematen zaie.

URKAMENDI ELKARTEA KIROLARIAK OMENTZEN

URKAMENDI ELKARTEAK AFARI BATEN BIDEZ TOURREKO LEHEN EUSKALDUNA IZAN DEN ABRAHAM OLANORI TXAPELA ESKAINI ZION. OMENDU DUTEN HERRIKO KIROLARIA BERRIZ, JUAN MARI GARIN KORRIKALARIA IZAN DA. IZASKUN BENGOA, ALVARO ETA

IGOR GONZALEZ DE GALDEANO ANAIK, ALBERTO MARTINEZ, HAIMAR ZUBELDIA ETA AITOR GARMENDIA TXIRRINDULARIAK, ETA MARINO LEJARRETA ETA TXOMIN PERURENA ERE GONBIDATU ZITUZTEN AFARIRA. KIROLARI HORIEN GUZTIEN ARTETIK HONAKO HAUEK ELKARRIZKETATU DITUGU.

IZASKUN BENGOA



22 URTE, INEFEKO 5. MAILAKO IKASLEA AMURRIOTARRA

15 URTEREKIN DEBUTATU ZUIEN HERRIKO TXIRRINDULARITZA TALDEAN

EGUN MACARIO TALDEKO KIDEA DA

Ezaugarriak: Maila guztitan ondo defenditzen den arren, erlojupeko eta mendiko probetan maila hobetu nahi du.

Garaipenak 1997. urtean: Euskal Herriko txapelduna; Espainiako txapelduna iraupen eta erlojuz kontrako probetan; Arabako Txalangea eta Euskaldun Saria irabazi ditu; 2.ena Europako erlojuz kontrako txapelketan eta 3.ena iraupenekoa, 2.ena Nafarroako Itzulian, 7.ena Emakume Biran eta 10.ena Mallorkan; Frantziako Tourrean eta Italiako Giroan Espainiako selekzioarekin parte hartzeko aukera izan du.


Zein egoeratan dago emakumezkoen txirrindularitza?

Gizonezkoek itzala egiten diguten arren, hobera doa emakumezkoen txirrindularitza maila. Mundiala Donostian egiteak eragina izan du. Komunikabideek jarraipena egin diote emakumezkoen txirrindularitzari.

Zein da zure hurrengo helburua?

Europako txapelketan parte hartuko ez dudanez Mundiala izango da nire helburu nagusia. Epe luzera, Sidneyen egingo diren Joku Olimpikoetan parte hartzea dira nire asmoa.

HAIMAR ZUBELDIA



20 URTE

USURBILDARRA

9 URTEREKIN USURBILGO

TXIRRINDULARITZA TALDEAN

DEBUTATU ZUIEN. AFIZIONATU MAILAN, OLARRA-ERCOREKA TALDEAN, BI URTEZ IBILI DA.

HURRENGO DENBORALDIAN EUSKALTEL-EUSKADI TALDEKO PARTAIDE IZANGO DA.

Ezaugarriak: Modalitate guztietan ondo moldatzen da, sprintean hobetu beharra du.

Profesional mailan korrituko duen txirrindulari gazteenetakoa izango da.

1.997.ko garaipenak:

Euskadiko eta Gipuzkoako txapelduna 23 urtez beherako mailan.

Markinako eta Lizarrako sariaren irabazlea.

Bidasoako Biran 3. postua lortu du.

Espainiako 23 urtez beherako txapelketan berriz, 5. postua.

Zein lasterketan hartuko duzu parte? Zein asmo edota helburu dituzu?

Mallorka, Almeria, Murziako Bira eta Nazioartekoa Kriteriunean hartuko dut parte. Helburuei degokionez, orain arteko progresioan jarraitu, profesional mailako kategoriara berehala egokitu eta postu onengatik lan egitea da nire asmoa.

ALBERTO MARTINEZ



22 URTE

PASAIATARRA

17 URTEREKIN ERRENDERIAKO TXIRRINDULARI TALDEAN HASI ETA KAIKU TALDEAN LAU URTEZ IBILI DA

HURRENGO DENBORALDIAN EUSKALTEL-EUSKADI TALDEKO TXIRRINDULARI IZANGO DA.

Ezaugarriak: Erlojuz kontra eta erroddore bikaina. Mendiko probetan gehiago hobete daiteke.

1.997.ko garaipenak: Lesaka eta Antzuola probetako irabazlea; 3.ena Espainiako 23 urtez beherako mailako erlojuz kontrako txapelketan; 4.ena Espainiako 23 urtez beherako errepideko txapelketan; 5.ena Salamankako Biran; Lesakako lasterketan irabazlea.

Mundiateko erorketaren ondoren, zer moduz aurkitzen zara?

Oraindik errekuperazio lascan nago baina bizikleta gainean ondo moldatzen naiz. Medikuek ondo geratuko naizela diote baina luze doan prozesua da. 1.997 oso urte txarra izan da.

Zein da 98rako zure helburua?

Lasterketeta batzuetatik bestecetara hilabeteko tarte egongo denez, lana egin beharko da tarte horretan forman egoteko. Nire lehen lasterketa Mallorkako proba izango da. Ondoren, Luis Puiig, Balentzia eta Nazioarteko Kriteriuna korrituko ditut.

EGOITZ TOLOSA PUNTA-PUNTAKO EHIZTARIA ETA KARATEKA

16 URTEKO GAZTEA DA EGOITZ ETA EDOZEIN KIROL EGITEA DU GUSTOKO. HALA ERE, EHIZA ETA KARATEKO "KUMITE" MODALITATEAN DIHARDU AZKEN URTETAN. EHIZERAKO AFIZIOA TXIKITXIKITATIK DATORKIO, BERE AITAREKIN EHIZEAN IBILTZEN ZEN GARAITIK. KARATEA BERRIZ, DUELA ZORTZI URTE HASI ZEN PRAKTIKATZEN. GARAIPEN UGARI LORTU DITU GAINERA, IZAN ERE, EHIZA TXIKIKO MODALITATEAN ANDOINGO, DONOSTIALDEKO, GIPUZKOAKO ETA EUSKADIKO TXAPELDUNA DA. KUMITEAN BERRIZ, GIPUZKOAKO ETA EUSKADIKO TXAPELDUNA. KIROL HORIEN NONDIK NORAKOAK EZAGUTZEKO EGOITZEKIN IZAN GARA.

Zertan datza ehiza txikiko txapelketak?

Ehiztari bakoitza eremu jakin batean dago ehizean lau-bost ordutan zehar eta txakurraren laguntza izaten du. Ehiztari bakoitzak epaile bat du ondoren egiten duen guztiaren oharrak hartzeko. Ehizatutako hegaztiekin kontrolera joaten gara, eta bertan, hegazti guztiak ez dute puntuazio bera jasotzen. Bi ehiztariak puntuazio bera lortuz gero, kontrolera azkarren joaten denak irabazten du.

Edozein hegazti ehizatu al daiteke?

Txapelketa guztiak ez dira berdinak izaten. Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan adibidez eperrak eta faisanak harrapatzen ditugu. Ehizatzen zailagoa den oilagorak puntu gehiago balio du.

Zein garaipen lortu dituzu ehizean?

Ehizeko txapelketetan parte hartzeko gutxienez 14 urte izan behar dira. Lehenengo urtean Andoingo txapelketa irabazi nuen eta Gipuzkoakoan bi-

garren postua lortu nuen. Iaz, Andoingo txapelketan garaile suertatu nintzen, Donostialdeko txapelketan bigarren postua lortu nuen eta Gipuzkoako txapelketan herriz, lehenengo postua. Aurren, Andoingo, Donostialdeko, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan lehen postua lortu dut.

Gaiaz aldatuz, karateko "Kumitea" modalitatea zer da?

Era errezean azaltzeko, "kumitea" tatami gainean egiten den bi minutuko borroka da. Lehiakide bakoitzak bestea jo egiten du. Gorputzeko zein atal jotzen duzun kontutan harturik puntuazio jakin bat lortzen duzu. Gipuzkoan jende gutxi ezagutu edota praktikatzen du oraingoz "kumitea".

Olinpiadetan kirol hau onartzekotan dabilta, eta hori eginez gero, jende gehiagok ezagutuko du kirola. Orduan jendea konpetizioetarako asko prearatuko da, egun "kumiteak" duen xarma galduz.

Karatean ere lortu al duzu garaipenik?

Hiru urte daramatzat "kumite"

txapelketetan parte hartzen. Denbora libre asko ez dudanez gutxi entrenatzen dut, baina badi-rudi nahiko ondoa moldatzen naizela "kumitean". Azken urte honetan Gipuzkoako txapelketan lehenengo postua lortu dut, Euskadiko txapelketan ere garaile izan naiz eta Espainiakoan seigarren postua lortu dut.

Orain gutxi egin den Gipuzkoako txa-



pelketa irabazi dut berriro. Abenduaren 14an egin den Euskadiko txapelketan berriz, finalerdietara iritsi nintzen arren, begian eman zidaten kolpea zela eta, medikuak txapelketatik at utzi ninduen.

Horrezaz gain, Euskadiko selekzioko partaide naiz eta bi astean behin Laudiora joaten naiz nire taldekideekin entrenatzera.

Garaipen horiek guztiak nire gelakide eta laguna den Egoitz Pomaresi eskaini nahi dizkiot.

Inoiz pentsatu al duzu kirol horietaz bizitzea?

Ez, izan ere, ezin da hortik bizi. Karateko txapelketetara joan ahal izateko nire poltsikotik jartzen dut dirua. Ondo pentsatuz gero, zein kiroletan ordaintzen da jipoitua izateko? Ehizean berriz, Euskadiko txapelketa irabazi bitartean ez dut dirurik irabazi, baina Euskadiko txapelketa irabaziz gero zertxobait ordaintzen dizute.

**"HEGAZTI GEHIEN
EDOTA AZKARREN
EHIZATZEN DITUEN
EHIZTARIAK
IRABAZTEN DU"**

Andoain

Gabon bezperako abeslariak. 1979.



Neskek ezkerretik eskuinera: Josune Iturriondobeitia, Eli Amondarain, Fernanda Irazu, Amaia Mujika, Garbiñe, Olga, Elena García, Josune Irusta, Agurtzane Elxeberría, Koro Erro eta Ana Enrique.

Mutilak ezkerretik eskuinera: Joseba Arsuaga, Jon Barranko, Xabier Mendiola, Emilio Audikana, Iñaki Barcina, Joseba Garmendia, Axier Lopez, Axier Larrañaga, Joxe Ramon Gil eta Iker Arnaiz.

Larramendi ikastolako ikasle abeslariak dira edo ziren argazkiko neska-mutilak. Hirugarren mailan zeuden ikasle hauen irakaslea Izaskun zen, eta biltzen zuten dirua, gaur egun bezalaxe, ikastolarentzat izaten zen. Ez dakigu gaur egun ere abesten irleten ote diren, baina umetan asko abestutakoak direla ziur izan, aurpegi zintzo horietan alzematen zaie.

Oharra: Elxeko gainbarren edota zapata kaxan sartuta eta ongi gordeta dituzuen argazki zaharrak Aurrin ikusi argitaratu baldin badituzue, badakizue, deitu 300732 telefonora kopia bat alera eta zuen informazio jasotzeko. Eskerrik asko.



LEIZAU

ALBA

Pío Baroja, z/g behe. 20140 ANDOAIN
Fax eta Tel. 943-30 06 08 Pos. Ku. 111. 20150 Billabona

- Aseguru orokorrak, bereziki autoak. % 50a bitarteko beherapenak onartzen ditugu.

Hilero auto baten aseguru zozketatzen dugu!

KARMEN RODRIGUEZ ASKAGINTZAKO KIDEA

ZER Aurtengo Gabonetan ez al duzue jostailuen inguruko kanpainarik egingo?

Ez. Jostailuen erosketari buruzko nahikoa hausnarketa kaleratu dira aurren. Eroskiko aldizkariak, Dominical aldizkariak eta eskolek adibidez hainbat gomendio eman dituzte aurren.

HERRI HIESaren inguruan, ondea, egin dituzue baimbat hausnarketa, ezta?

Andoainen oso egoera larriak eman dira gaixotasun honen inguruan. 90. urtetik aurrera herritar ugari hil da gaixotasunaren ondorioz, eta ez dira gutxi egun gaixorik daudenak. Halere, guk mezu positiboa eman nahi dugu, aurrerapen handiak eman baitira gaixotasunaren sendabidean.

BERBERE Zein da bada zabaldu nahi duzuen mezua?

Gaixoak erresidentziarekin harremanetan jartzera animatzen ditugu, sendagai eragingarriak baitaude egun eta familia terapia egokiak jarri dituzte martxan. Esperantza edukitzeko arrazoirik bada beraz.

BERBERE Prebentzio neurrien inguruan egingo al duzue kontzientziazio lanik?

HIESaz kutsatutako lehen lagunak drogaren bitartez kutsatu ziren gehienbat, nahiz eta egungo egoera bestelakoa den. Guk beti landu izan dugu prebentzioa,

baina egokiagoa iruditzen zaigu gaixoei beraiek talde bat osatzea lan hori egiteko. Hlau da, uste dugu egokiena dela HIESdunek beraiek batera lan egiteko talde bat sortzea. Elkarlanean lan eginez eta protagonistek beren egoeraren berri emanez informazioa hobeto zabalduko delakoan gaude.

BERBERE Ba al dago borrelako esperientziarik nonbait?

Bai. Oiarzungo Harribeltza elkarte adibidez horretan ari da. Duela pare bat urte Andoainen izan ziren beren proiektuaren berri emateko.

BERBERE Herriko beste erakunderik ari al da gaiaren inguruan lanean?

Herriko ikastetxeak hasi dira pausuak ematen honen inguruan, Eusko Jaularitzaren eta beste zenbait erakunderen kanpainak martxan jartzen, alegia. Halere, gure ustez herri mailako plangintza zabala behar da gai honen inguruan informatzeko eta prebentzio lana egiteko. Udala auzi honen inguruan zerbait egitekotan dela uste dugu.



Mikel Jauregi mutiko andoaindarrak jaso du gure lehiaketan zozketan jarri dugun saria. Egia esan, bere anaia Jonen izenean heldu zitzaigun gutuna izan zen saritua, baina azken honek hiru urte besterik ez dituen sei urteko Mikelek jaso du "Zifrak eta letrak" jokoa **Ernaitza liburudendako** Garikoitz Plazaolaren eskutik. Bi mutikoen amak esan digunez erraz asmatu zuten txoko ezezaguna zein zen: **Larraulgo eliza**, alegia. Izan ere, mutikoen osaba Asteasukoa da eta berehala asmatu zuten lehiaketaren erantzuna. Lehiaketan parte hartu duzuen guztioi zorionak eta ea hurrengo txokoa asmatzen duzuen!

ERNAITZA LIBURUDENDA

Euskal eta erdal literaturako azken nobedadeak, opariak eta oleoz margotzeko gaiak.

Zumea kalea, 2 - ANDOAIN Tel. 59 24 59

HAUR ZINEMA

ANDOAIN

Urtarrilak 4: "Jumanjy" pelikula ikusgai. Allurralde Kiroldegian arratsaldeko 18:00etan. Sarrera: 300 pezeta.

ERAKUSKETA

ANDOAIN

Abenduak 20-30: Jaiotzen erakusketa Anbroσία Olabide egoitzan. Ordutegia: Astegunetan: 18:00-20:00. Asteburuetan: 11:30-13:30 eta 18:00-20:00. Abenduaren 25ean: 11:30-13:30.

Urtarrilaren 1etik otsailaren 1era: Marta Cardenasen marrazkiak ikusgai. Bisita orduak: astegunetan eta larunbatetan 10:30etatik 12:30etara eta 18:00etatik 20:30etara; igande eta jaiegunetan 11:30etatik 13:30etara.

MUSIKA

ANDOAIN

Urtarrilak 25: Oskorri eta Kukubiltxoren "Marijane kanta zan" saioa ikusgai. Sarrerak salgai jarriko dira alde zurretik Urigain Kultura Etxean eta ohizko lekuetan.

BILLABONA

Abenduak 30: Lizardi haur abesbatzaren kantaldia Billabonako Elizan.

GABONETAKO EKINTZAK

ASTEASU

Abenduak 29: Bilbora txangoa, haur parkera.

Urtarrilak 5: Erregeen kabalgata.

ANDOAIN

Urtarrilak 5: Erregeen kabalgata.

AIZTONDO BAILARAN

Abenduak 29: Gabonetako Haur Parkera jongo dira Aduna, Alkiza eta Zizurkil goiko haurrak.

HITZALDIAK

ASTEASU

Abenduak 30: Internet-ari buruzko hitzaldia. Hitzlaria: Axier Otamendi (Elhuyar).

HAUR ANTZERKIA

BILLABONA

Abenduak 30: Paraiso taldearen "Ni hartza naiz" antzezlan (euskaraz). Gure zinema aretoan arratsaldeko 18:00etan. Sarrera: 400 pezeta.

LEIZAUR LIBURUAK SALGAI


Andoaingo historiari buruzko Leyçaur 0, Leyçaur 1, Leyçaur 2 (2. argitalpena), Leyçaur 3 eta Leyçaur 4 bilduma osoa 5.500 pezetatan eros daiteke Andoaingo liburutegian. Liburuak banaka erosiz gero berriz, Leyçaur 0 liburuak 2.000 pezeta balio du, eta gainerakoak, bakoitzak, 1.200 pezeta. Leyçaur 1 liburuko 2. argitalpenaren berrikuntza, lehenengo argitalpeneko erdarazko lanak euskaraz, eta euskarazkoak berriz, erdaraz idatzi direla da.

KOMIKIA

EGUBERRIAK 1^{GO} MUNDUAN



2^{en} MUNDUAN 3^{en} MUNDUAN





**ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK**



MITZBELTZ

Arteta Kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxa: 30 03 45
ANDOAIN



- Interiores de madera
- Lehoiak
- Ateak
- Begira tokiak (Miradoreak)
- Frentes de armario

J. MAIZA S.L.

Aluminioa • Poliuretanoa • PVC-a

ERAKUSKETA

Aita Larramendi, 6 behea - Tel.: 300788

TAILERRA

53 Poligonoa - Sorabilla

Tel.: 300424-300788

20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)

**Zorionak eta
urte berri on!**

Roger Wesley
Ingeleseko klase partikularrak

*Klaseak Karrikan izango dira
urtarrilaren 19tik aurrera.*

Tfnoa: 13 31 21 goizeko 9etatik 11etara.

**EUROPEAN
SCHOOL
HIZKUNTZ AKADEMIA**

→ JATORRIZKO IRAKASLEGO
TITULUDUNA

→ TALDE MUGATUAK

→ IKASTAROAK URTE OSOAN
- "STEP UP" PROGRAMA,
ESKOLARAKO LAGUNTZA

- ENPRESETARAKO
IKASTARO BEREZIAK

→ AZTERKETA OFIZIALETARAKO
PRESTAKUNTZA

→ CAMBRIDGE, ALLIANCE FRANCAISE
TITULUTARAKO AZTERKETAK

→ AU-PAIR, WORK-STUDY,

→ HIZKUNTZA IKASTAROAK

→ IRLANDA-FRANTZIA-BREITANIA HANDIA

Zorionak!

INGELES - FRANTSESA

Kale Berria, 10 Tel. - Fax 69 39 76
BILLABONA

MAPFRE

**ZURE AUTOAREN
ASEGURUA AUKERATU
BAINO LEHEN
10 ARTE ZENBATU...**



*Xabin Mujika Tolaretxipi
Dr. Huizi, 4
Tfnoa: 59 23 07 ANDOAIN*

**%50 ARTEKO
BEHERAPENAK
KOTXEETAKO
ASEGURUETAN**



*Preziosa galdetxeagatik
errepide mapa
oparituko dizugu.*

...ETA ASEGURU BIKAIN BATEZ GOZATU


KALEBERRI

medikuntza zentrua

**Gida-agiri
eta arma baimenatarako
ikerketak!**

ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera: 18:00tik 20:00etara.
Larunbatetan: 12:00etatik 14:00etara.

Urte berri on!



Kaleberria, 8 baja
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)
Telf.-Faxa:943-592957

**Andoaindarrei
eta bailarako
guztiei egun
zoriontsuak opa
dizkizuegu.**

URTE BERRI ON!

AITA LARRAMENDI IKASTOLA

TV
E-mail/Andoain @ ikastola. net 20140 ANDOAIN

Istuitza Garden

Eguberrietako lore apaingarriak
Pinu naturalak eta artifizialak

- Lore naturalak eta artifizialak
- Landareak
- Lorontziak
- Lurra
- Ehizatxakurrentzako janari berezia.

**ETXERAINOKO
ZERBITZUA!**



Ordutegia: 9:00-13:30 - 17:00-20:00
Karrika, 9 -ANDOAIN- ☎ 59 24 48

- Olentzero argazkiak
- Jaunartzetarako egunak
erresebatzen ditugu

FOTO - BIDEO - ARGAZKI

Nagusia, 19
Andoain

☎ 943-30 07 27
907-44 35 47

**Eguberri on!
Urteberri on!**

**B
I
K
O
I
T
Z**